

ZOZKETAREN OINARRIAK

500 €-KO BOST TXARTELEN ZOZKETA

LABORAL Kutxaren LK PAY APPAREN 2020KO KANPAINA

1.- Erakunde antolatzailea eta saria.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, F75076935 zenbakidun IFK eta helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, nazio-mailako ZOZKETA egingo du, 18 urtetik gorako bezeroen artean LK PAY appa deskargatu eta erabiltzea sustatzeko, 5. atalean, «parte-hartzaileak» izenekoan, jasotakoaren arabera.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna.

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa eta borondatezkoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- Zozketaren xedea eta prozedura.

Zozketa bat (1) egingo da, eta honako hau izango da saria: tokiko saltokietan gastatzeko 500 €-ko bost txartel. Irabazle bakoitzak 500 €-ko txartel bat eskuratuko du. Guztira, 500 €-ko 5 sari egongo dira, beraz. Sariak iraupen mugatua izango du: 6 hilabetean gastatu beharko da, dagokion saltokiak sustapen honetan parte hartzea onartzen duen egunetik zenbatzen hasita.

Honako baldintza eta egintza hauek guztiak bete behar dituzte erabiltzaileek zozketan parte hartzeko:

- LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek hartu ahal izango dute parte zozketan, baldin eta 2020ko ekainaren 10etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK Pay appa erabiliz mugikor bidezko ordainketa bat egiten badute, LK Pay appeko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute, edo LABORAL Kutxaren txartelarekin ordainketa bat egiten badute, Apple Pay erabiliz. Parte-hartzaileek partaidetza bat lortuko dute Bizum bakoitzeko (5 gehienez), beste bat mugikor bidezko ordainketa bakoitzeko (5 gehienez) eta beste bat Apple Pay bakoitzeko (5 gehienez). Bezero bakoitzak gehienez 10 partaidetza lortu ahal izango ditu zozketarako.
- Irabazleak saria onartzeak eskubidea ematen dio LABORAL Kutxari haren izena eta saria eman zaioneko argazkiak argitaratzeko, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko telematiko edo inprimatuetan, sustapenaren emaitza ezagutarazteko xedez.
- Irabazleek, saria onartu baino lehen, baimena eman behar diote LABORAL Kutxari haien izena eta sari-banaketaren ekitaldian ateratako argazkiak argitaratzeko, entitateak egoki deritzen baliabide telematiko edo inprimatuetan.
- Zozketaren irabazleak aukeratutako saltokiek ere baimena eman beharko diote LABORAL Kutxari haien izena eta sari-banaketaren ekitaldian saridunei ateratako argazkiak argitaratzeko, entitateak egoki deritzen baliabide telematiko edo inprimatuetan.

4.- Iraupena eta eremua.

Jarduera Espainiako lurraldean gauzatuko da.

Zozketan parte hartzeko epea 2020ko ekainaren 10ean hasi eta 2020ko abuztuaren 31n amaituko da, biak barne.

5.- Parte-hartzaileak.

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan:

LABORAL Kutxaren bezero diren pertsona fisiko guztiek, baldin eta 2020ko ekainaren 10etik 2020ko abuztuaren 31ra bitartean LABORAL Kutxaren LK Pay appa erabiliz mugikor bidezko ordainketa bat egiten badute, LK Pay appeko Bizum zerbitzuaren bidez dirua mugikorretik mugikorrera bidali edo eskatzen badute, edo LABORAL Kutxaren txartelarekin ordainketa bat egiten badute, Apple Pay erabiliz. Parte-hartzaileek partaidetza bat lortuko dute Bizum bakoitzeko (5 gehienez), beste bat mugikor bidezko ordainketa bakoitzeko (5 gehienez) eta beste bat Apple Pay bakoitzeko (5 gehienez). Bezero bakoitzak gehienez 10 partaidetza lortu ahal izango ditu zozketarako.

Zozketaren irabazleak aukeratuko dute zer saltokitan gastatu nahi duten sari 500 euroak, betiere LABORAL Kutxak tokiko saltokitza hartzen duenari jarraikiz. Hau da, autonomoek kudeatutako saltokiak, hurbiltasuneko kontsumo komertziala sustatzen dutenak, izan beharko dute. Beraz, baztertu egingo dira azalera handiko saltokiak, edozein motatako frankiziak eta LABORAL Kutxak «auzoko saltokitza» hartzen duenarekin bat ez datozen saltokiak. Saltokiak fisikoa izan behar du, eta zozketaren irabazlea bizi den herrian egon. LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren irabazleak aukeratutako saltokia ezeztatzeko, entitatearen ustez hori tokiko saltokia ez bada, LABORAL Kutxak tokikosaltokitza hartzen duenari jarraikiz.



ZOZKETAREN OINARRIAK

500 €-KO BOST TXARTELEN ZOZKETA

LABORAL Kutxaren LK PAY APPAREN 2020KO KANPAINA

Honako hauek hartu ahal izango dute parte zozketan:

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak, baita taldeko, partaidetzako edo antzeko sozietateetakoak eta kanpainarekin zerikusi zuzena duten pertsonak ere.

Tokiko saltoki batean kontsumitzeko 500 €-ko bost txartelen zozketa.

Agiri honek kanpainaren baldintzak jaso eta zehazten ditu.

Ez dute parte hartzeko edo saria irabazteko eskubiderik izango LABORAL Kutxaren bezeroek, baldin eta:

- LABORAL Kutxaren aurrean berankortasun-egoeran edo beste edozein egoera irregularretan badaude zozketa indarrean dagoen bitartean, zozketa egiten den egunean edo saria emateko unean.
- LABORAL Kutxaren iritziz iruzurrez jokatzeko badute zozketan.

6.- Irabazleak eta ordezkioak aukeratzea, erreserbak, jakinarazpena eta saria ematea.

Aurreko 3. atalean zehaztutako sariaren zozketa 2020ko irailaren 9an egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez.

Bidezko arrazoiren baten ondorioz zozketa aipatutako egunean ezin bada egin, hurrengo egun baliodunean egingo da.

Saridunak LABORAL Kutxari berretsi beharko dio saria onartzen duen ala hari uko egiten dion, telefonoz, posta elektronikoz edo bulegoetan sinatutako hartu-agiriaren bidez, saria argitaratzen eta/edo jakinarazten den datatik gehienez egun natural bateko (1) epean.

Parte-hartzaileak sariari uko egiten badio edo berarekin harremanetan jartzerik ez badago, ez du ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Bezero saridunak sariari uko egiten badio, berarekin harremanetan jartzerik ez badago edo lehenago azaldutako baimena ematen ez badu, saria ordezkioen zerrendako lehen postuan dagoenari esleituko zaio, zozketan parte hartzeko ordena errespetatuz. Saridunak ezin izango du sariaren ordezkioa beste bat eskatu.

Irabazlea hil egiten bada saria jaso aurretik, berariaz aukeratutako ordezkioari emango zaio.

Era berean, irabazleak 500 €-ko saria gastatzeko aukeratutako saltokiak sustapenean parte hartzeari uko egiten badio edo LABORAL Kutxak uste badu ez dela tokiko saltokia eta, beraz, ezin duela sustapenean parte hartu, irabazleak beste saltoki bat aukeratu beharko du, harik eta agiri honetan zehaztutako baldintzak betetzen dituen saltokia aukeratu arte. Ikusi 5. atala, «Parte-hartzaileak», non zehazki azaltzen den zer hartzen duen LABORAL Kutxak tokiko saltokitzat.

LABORAL Kutxa jarriko da saltokiekin harremanetan. Guztira 5 izango dira, saltoki bat irabazle bakoitzeko.

7.- Sariaren zerga-sistema.

Zozketa honetako sariak zerga-tratamendu hau izango du: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 35/2006 Legean, 439/2007 Errege Dekretuan eta kasuan kasuko PFEZren inguruko zerga-araudian aurreikusitakoa. Sariari aplikatuko zaion zerga-atxikipenari dagokion zenbatekoa LABORAL Kutxak ordainduko du.

Gainera, LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagozkion informazio-betebeharrak.

8.- Iruzkinak edo iritzia argitaratzea.

Ez da onartuko eduki desagokia duen iruzkin edo iritzirik, ezta iraingarria, laidogarria edo diskriminatzailea denik edo hirugarrenen eskubideak urra ditzakeenik ere. Halaber, ez da onartuko pertsona baten aurkako iruzkinik, baldin eta ohorerako, intimitate pertsonalerako eta familiarerako eta norberaren irudirako eskubidea urratzen badu. LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko parte-hartzaileek zozketan egindako iruzkinek eragin ditzaketen kalteen inguruan, nahiz eta horiek beste parte-hartzaile batzuen sentiberatasuna mindu.

9.- Erreserbak eta mugak.

Iruzurra egin dela ulertuko da honako kasu hauetan, adibide gisa baina inolako mugarik jarri gabe: webgunearekin zerikusirik ez duten aplikazioen balizko erabilera detektatzen bada, zerbitzariari abusuzko kontsulta-kopurua egiten bazaio, eta itxuraz abusuzkoak edo/eta asmo txarrekoak diren portaerak antzematen badira.

Zozketan zehar aipatutako egoeraren bat egiaztatzen bada, parte-hartzailea zozketatik kanpo geratuko da automatikoki, eta saria eman bazaio, galdu egingo du.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko, baldin eta saridunek emandako datuetan akatsen bat badago eta horrek haien identifikazioa galarazten badu.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko saria ematean edo hori erabiltzean gerta litezkeen gorabeheren ondorioz, ezta berari ez dagozkion arrazoiengatik parte-hartzaileak saria jasotzean gerta litezkeen atzerapen edo hutsegiteen ondorioz ere.



ZOZKETAREN OINARRIAK

500 €-KO BOST TXARTELEN ZOZKETA

LABORAL Kutxaren LK PAY APPAREN 2020KO KANPAINA

Pertsonaren batek zozketaren manipulaziotzat edo faltsifikaziotzat har litekeen edozein egintza egiten badu, LABORAL Kutxak eskubidea izango du haren aurkako akzio judizialei ekiteko.

LABORAL Kutxak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko zozketan parte hartzeko erabiltzen diren zerbitzuak aldi baterako erabiltzerik ez egoteagatik edo haien funtzionamendua eteteagatik, erabiltzaileek iruzurrez erabiltzeagatik eta, bereziki baina ez eskusiboki, Internet bidez orrialdeetan sartzean eta parte hartzeko erantzunak bidaltzean gerta litezkeen akatsen ondoriozko kalte-galerengatik. LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren xede onerako aldaketak egiteko, horretarako bidezko arrazoiak daudenean edo zozketa oinarri hauetan jasotzen den moduan burutzea galarazten duten ezinbesteko arrazoiak daudenean.

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketaren iraunaldia luzatzeko edo geroratzeko, baita oinarri hauek interpretatzeko ere. Halaber, enpresa antolatzaileak ez du bere gain inolako erantzukizunik hartuko aipatutako kasuetako bat gertatzen edo saria baliatzean kalte-galerarik sortzen bada.

10.- Datuen babesa.

Zure datuen tratamenduaz arduratzen den enpresa LABORAL Kutxa da (IFZ: F-75076935; eta egoitza soziala: Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa).

Parte-hartzaileak lege-oinarri hauek onartzen baditu, ulertuko da jakinarazi zaiola LABORAL Kutxak haren datu pertsonalak tratatuko dituela, zozketan parte hartzea tramitzatzeko eta, irabazlea izanez gero, sariaren berri emateko, baita saridunaren izena eta/edo irudia argitaratu, erreproduzitu eta hedatzeko ere, LABORAL Kutxak egoki deritzen bitarteko, euskarri eta formatuen bidez (hala nola, adibide gisa baina inolako mugarik gabe, prentsaren, irratia, telebistaren, Interneten eta abarren bidez), datu pertsonalak tratatzeko pertsona fisikoak babesteari eta datuen zirkulazio libreaki buruzko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (DBEO) eta datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/29018 Lege Organikoan (DBLO) xedatutakoaren arabera. Aipatutako jarduera horiek ez dute ordainik edo onurarik jasotzeko inolako eskubiderik emango.

Datuak ikusteko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak eta, era berean, datuen tratamendua mugatzeko eta beste leku batera eramateko eskubideak erabili ahal izango dituzu, zure nortasuna egiaztatuz (NANaren edo horren pareko agiri baten bidez) eta honako helbide elektroniko honetara idatziz: protecciondatos@laboralkutxa.com, edo, bestela, ohiko postaren bidez honako helbide honetara: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500, Arrasate, Gipuzkoa.

Bezeroen Datu Pertsonalak Babesteko Politika osoa hemen irakur dezakezu: <https://www.laboralkutxa.com/eu/datuen-babesa>.

11.- Oinarriak onartzea.

Zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea. Beraz, parte-hartzaileak adierazten badu oinarri hauek guztiak edo batzuk ez dituela onartzen, zozketatik kanpo geratuko da. Ondorioz, LABORAL Kutxak ez du parte-hartzaile horrekin hartutako obligazioa bete beharko. Oinarri hauek www.laboralkutxa.eus webgunean kontsulta daitezke.

12.- Legeria aplikagarria eta jurisdikzioa.

Lege-oinarri hauek Espainiako legearen arabera arautuko dira. Bergarako epaitegi eta auzitegiek izango dute eskumena oinarri hauen baliozkotasunaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor litezkeen erreklamazioak edo ezadostasunak ebazteko.